

2007ko maiatzaren 22an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.007KO APIRILAREN 24KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- ADUNAKO UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN BEHIN BETIKO AKORDIOAREN AURKAKO ALEGAZIOAREN AZTERKETA
- 5.- ADUNAKO UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN TESTU BATERATUAREN ONARPENA.
- 6.- 1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN ERASANDAKO ESKUBIDE ETA ONDASUNEN ERLAZIOAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.
- 7.-1.8 UNITATEKO HIRITARTZE OBREN ADJUDIKAZIOA.
- 8.- UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO OBRA ZIBILAREN ADJUDIKAZIOA.
- 9.- UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO IGOGAILUAREN INSTALAKUNTZAREN ADJUDIKAZIOA.
- 10.- ADUNAKO LARDI AUZOKO ZOLAKETA PROIEKTU ALDATUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 11.- TORRE BASERRIKOEKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN ONARPENA ETA ALKATEARI SINATZEKO AHALMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 12.- PREFABRICADOS ITURRIA, S.L.-KIN SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN ONARPENA ETA ALKATEARI SINATZEKO AHALMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 13.- HERRIKO LURSAILA SALTZEKO ENKANTEAREN PLEGUAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 14.- ABIADURA HAUNDIKO TRENAREN ALTERNATIBEI ALEGAZIOAK EGITEA.
- 15.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 16.- ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.
- 17.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 18.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 19.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko maiatzak 17.

ALKATEA.

2.007KO MAIATZAK 22.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Arantza Aburuza Alkorta.

Mikel Sarasola Asteasuain.
Antton Artola Ibarguren.
Miren Aburuza Alkorta.
Javier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Bertaratu gabea:

Patxi Ormaetxea Otegi.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko maiatzaren hogeita biko hogeita bat ordu eta hamabost minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.007KO APIRILAREN 24KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2007ko apirilaren 24ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Igogailua instalatzeko igogailuaren instalatzeko obrak egiteko baldintza pleguak onartzea (34/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- Igogailua instalatzeko obrak egiteko baldintza pleguak onartzea (35/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- Moyua enpresari Adunako "Miravalles" lurpeko estruktura seilatzeko eta birgaitzeko baimena ez ematea (36/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- Haizpea industrigunearen atzean dagoen furgonetan bizi direnei, ibilgailuak eta gainerako tresneria eremu horretatik kentzeko agindua ematea (37/2007 Alkatetza Ebazpena).

5.- Xabier eta Maria Rosario Tejeria Jaun/ Andereei Adunako 3.alorreko 3.1 unitateko 3.1 D lursailean eraikitzen ari diren etxebizitzan gehiegizko eraikigarritasuna deusestatzeko proposamena onartzea (38/2007 Alkatetza Ebazpena).

6.- Aragi Bulegoak, S.L.-ri 1.4 unitateko 6 etxebizitzatako eraikinean leiho berri bat egiteko baimena ematea (39/2007 Alkatetza Ebazpena).

7.- Kontxi Artola Jauregui Andereari Artolaenea baserrian balkoia terraza bihurtzeko baimena ez onartzea (40/ 2007 Alkatetza Ebazpena).

8.- Gregorio Altube Arsuaga Jaunari Refractarios Kelsen, S.A.-ren izenean 118 m2 segregatzeko baimena ematea (41/2007 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:

ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.

Ez dago eskaerarik.

LAUGARREN PUNTUA:

ADUNAKO UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN BEHIN BETIKO AKORDIOAREN AURKAKO ALEGAZIOAREN AZTERKETA.

ADUNAKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN BERRIKUSPENAREN ZUZENKETA-ESPEDIENTEARI, “AIZPEA BASERRIA BAT” 3, “AIZPEA BASERRIA BI” 4, “GAINZA BEHEKOA BI” 5B ETA “GAINZA BEHEKOA HIRU” 6 AREEI BURUZKOARI, JARRITAKO ALEGAZIOEN ERANTZUN-TXOSTENA.

Adunako Udalbatza osoak, 2007ko apirilaren 10eko bilkuran, onartu egin zuen Hiri Antolaketako Arauen berrikuspenaren zuzenketa-espeditentea, “Aizpea baserria Bat” 3, “Aizpea baserria Bi” 4, “Gaintza behekoa Bi” 5B eta “Gaintza behekoa Hiru” 6 areei buruzkoa.

Espediente hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendaurrean ikusgai jarri zen, interesdunek bidezko alegazioak jartzeko aukera izan zezaten.

Epea agorturik, alegazio bat jaso da 2007ko maiatzaren 8an, sarrera-erregistroan 319 zenbakia dagokiona, **JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak** izenpetua.

Alegazioaren edukia:

Alegaziogileak, Gaintza-behekoa baserriaren jabe den aldetik, adierazi du ez dagoela ados Diputatuen Kontseiluak 2007ko martxoaren 6ko bilkuran hartutako erabakiarekin, hau da, Adunako Hiri Antolaketako Arauen berrikuspen espeditentea behin betiko onartzerakoan 3 eta 4 areei buruz erabakitako etendurarekin. Alegazio horretan, aipatutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoan (kopia bat eranskin gisa aurkeztu du) adierazitako argudioak berretsi ditu, errekurtsoaren edukia ontzat har dadin eskatuz; izan ere, alegaziogilearen iritziz, eduki hori bat dator Adunako Udalak “5B, Gaintza behekoa Bi” eta “6, Gaintza behekoa Hiru” areei buruz bere garaian onartu zituen hirigintzako irizpide, helburu eta proposamenekin.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Hain zuzen ere, alegaziogileak aipatzen dituen sailkapen, kalifikazio eta antolaketa irizpideak defendatu izan ditu Adunako Udalak; hau da, interesdunak bere alegazioan eta Gipuzkoako Foru Aldundian ipinitako berraztertze errekurtsoan aipatzen dituen irizpideak, alegia.

Ezin dugu ahaztu, ordea, Diputatuen Kontseiluak 2007ko martxoaren 6an hartutako erabakia. Izan ere, bilkura hartan erabaki zuen Adunako Hiri Antolaketako Arauen berrikuspen espeditentea behin betiko onartzea baina, “5B, Gaintza behekoa Bi” eta “6, Gaintza behekoa Hiru” areei dagokienez, onespina etetea.

Hori dela-eta, Udalak gai hau zuzenean Foru Aldundiarekin landu behar izan zuen, etendurari irtenbide bat emateko. Aldi berean, etendurak eragindako areen onespena ekarriko zuketuen aukera desberdinak proposatu zitzaizkien ukitutako jabeei, baita alegaziegileari ere, eta denon artean adostasun batera iritsi ginen ukitutako areen antolaketa, sailkapen eta kalifikazioaren inguruan. Adostasun horretan oinarrituta egin zen Adunako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena zuzentzeko espedientea, “Aizpea baserria Bat 3, Aizpea baserria Bi 4, Gaintza behekoa Bi 5B eta Gaintza behekoa Hiru 6” areei buruzkoa”. Udalbatza osoak dokumentu hori onartu egin zuen 2007ko apirilaren 10eko bilkuran, eta jendaurrean ikusgai jarri. Eta, datozen egunotan, Udalak onartu beharreko testu bateginean txertatuko dugu, ondoren Foru Aldundira bidaltzeko, etendura ken dezaten.

Hori guztia aintzat hartuta, ez dirudi aipatutako alegazioa une honetan egokia denik, bi ikuspuntu hauetatik begiratuta:

Batetik, aipatutako zuzenketa-espediente horren testua lurjabeekin landu dugu alde zuzenetik, eta hauek, ados azaldu ziren dokumentuan jasotako hirigintza-irizpide berriarekin. Beraz, ez da zentzuzkoa agiri hori berriro aldatzea; are gutxiago Udalak, adostasun batean oinarrituta, aukera berriaren alde egin ondoren.

Bestetik, behin-behinekoz onartutako dokumentuan jaso zen eta alegaziegileak defendatzen duen hirigintza-plangintza baliozkoa bazen ere, Foru Aldundiak etenda utzi zuen aipatutako areei buruzko onarpena; ondorioz, Udalak oraingo aukera berri honen alde egin du, lurjabeekin adostu bezalaxe.

Horrela bada, Udalak ezin ditu erabakiak behin eta berriro aldatu; ezin da ibili Diputatuen Kontseiluaren etenduran oinarritutako irizpideak onartzen eta segidan erabaki horiek deuseztatzen, berriro aurreko proposamenetara itzultzeko; horrela, izan ere, aipatutako areei buruzko etendurak bere horretan jarraituko bailuke eta, jakina, area horien antolaketa erabaki gabe geratuko litzateke.

Adierazitako guztia aintzat harturik, **PROPOSATZEN DUT:**

EZESTEA, **JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA** jaunak aurkeztutako alegazioa.

BOSTGARREN PUNTUA:

ADUNAKO UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN TESTU BATERATUAREN ONARPENA.

Ikusirik Soroa Arquitectos, S.L, IKAUR, EKOLUR eta ARAUDI-k Adunako Udal Plangintzarako Ordezko Arauen Berrazterpenaren Testu Bateratuaren onarpenerako aukezturiko dokumentazioa.

Ikusirik Udal Idazkariak egindako txostena.

Udalbatzak, legezko kideen kopuruarekin , zera erabaki du:

1.- Adunako Udal Plangintzarako Ordezko Arauen Berrazterpenaren Testu Bateratuari onarpena ematea.

2.- Espediente osoa, behar bezela diligentziatuta eta seilatuta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman dezan.

SEIGARREN PUNTUA:

1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN ERASANDAKO ESKUBIDE ETA ONDASUNEN ERLAZIOAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105 artikuluan oinarrituaz, Adunako Udalak honako errore zuzenketa egiten du: 2.007ko apirilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko Adunako 1.8 unitateko hiritartzeko proiektua gauzatzeko erasandako ondasun eta eskubideen haserako onarpenaren zerrendan, ondasunen izaera jasotzen ez denez, izaera hiritarra jasotzea.

Herri honetako Udalbatzak, 2007ko MAIATZAREN 22ean egindako Ohiko Batzarrean, besteen artean, ondorengo erabaki hau hartu zuen:

Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2001eko urtarrilaren 30ean Adunako Hiri Antolaketako Arauen 1 areako aldaketa onartu zen behin betikoz. Horietan, 1.8 HEA dago eta herri onuragarritasuna dakar inplizituki.

Aurrekoa ikusirik , Adunako Udalak, 2007ko martxoak 20ean burututako Ohizko Udalbatzan, osoko bilkurak 1.8 unitatekoa Hiritartze proiektua gauzatzeko derrigorren desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrendari haserako onespina eman zitzaion.

Aipatutako zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2007ko apirilak 12an, 15 eguneko epean jendaurrean ikusgai jartzeko tramitea betez. Era berean, bidezko iragarkia egunkarian ere eman zen argitara.

Horrez gain, interesatu guztiei banan-banan erabaki horren berri eman zitzaien, beren eskubideen defentsarako bidezko alegazioak jartzeko aukera izan zezaten. Hasierako onespina eman zaion ondasunen zerrendaren aurkako desadostasunik ez dagoenez, ez dago aipatu zerrenda aldatzeko arrazoirik.

Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legeko 177 eta 178.artikuloek aurreikusten dutenari jarraituz, Organo eskudunari –Alkateari, alegia– desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen premiazko okupazioa eskatzeko aukera aurreikusi da, erantsitako memorian ikus daitekeen moduan kasu honetan benetakoa baita ondasun horiek okupatzeko premia.

Adierazitako guztia aintzat harturik,

ERABAKI DA

Lehenik.- Erabaki honen eranskin gisa doan ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onestea eta, ondorioz, ondasun eta eskubide horiek okupatzeko premia aitortzea

Bigarren. Adunako Alkateari ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legeko 177 eta 178. artikulua aurreikusten duen premiazko okupazioa onar dezan eskatzea.

Hirugarren.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiko egunkarietako batean argitaratzea; eta interesdun guztiei, banan-banan, erabaki honen berri ematea.

Eranskina:

DESJABETU BEHARREKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA:

- **Finkaren zk.:** 1

- **Jabea:** Leandro Galatas Bengoetxea jauna.

- **Helbidea (k):** Elbarrena 1, 1 .20150 Aduna

- **Desjabetzapena:** 708 m2.

- **Aldi baterako okupazioa:** 289 m2.

- **Erregistroko deskripzioa:** “Etxeberri izeneko baserria, Adunako udal barrutiko Goiburua auzoan dagoena; aipatutako auzoan hamalau zenbakia dagokion etxeak hiru area eta berrogei zentiareako lursail-

orubea hartzen du, mendebaldeko ertzean itsatsita duen teilapearekin batera eta eraikinak behe-solairua eta goi-solairu bat ditu. Etxeak eta teilapeak, lau aldeetatik, baserriaren jabetzako lurrekin egiten dute muga.

1.- Etxearen bueltako lursailak, mugarriz inguratuta, izen hauez ezagutzen direnak: Lisa-erreka-aldea, Bentaberri-aldea, Altamira, Kamio-aldea, Bikario-etxe-aldea eta Elizegi-aldea. Honako mugak dituzte: Ekialdean, Kamio, Arizaga eta Txantxarrenea baserrietako sailak; Hegoaldean, Lisa-erreka izeneko erreka eta Txantxarrenea baserriko sailak; Mendebaldean, Garagarza baserriko sailak, Txantxarreneakoak, Benta-berri izeneko baratzea, Elizegi etxeko baratzea eta bikario etxeko baratzea; Iparraldean, Bentaberri baserriko sailak, Gabriel Sorondo jaunaren jabetzako eremuak, Aszensio Cortajarena jaunaren eremua, Txantxarrenea baserriko saila, bikario etxeko baratzea, Elizegi etxeko jabetzako eremua eta Gainza Goikoa etxeko baratzea. Honako azalera hartzen dute: bi area eta hogeita bost zentiareako ataurrea; hamabost area eta berrogeita hamabost zentiareako baratzea, erabat itxia; laurogeita hamabi area eta hamaika zentiareako erein-lurra; berrogeita hamazazpi area eta hogeita bat zentiareako sagardia; hamasei area eta berrogeita bat zentiareako saila, ezpondaz eta belardiez osatua; eta, hogeita hiru area eta berrogeita zortzi zentiareako sastrakadia, berezko hainbat gaztainondo eta haritz dituenak”.

- **Desjabetu beharreko lursailaren deskripzioa:** Arestian deskribatu den jabetza horretatik desjabetu beharreko saila, Elizegialdea izeneko sailaren zati bat da. Honako mugak ditu: Iparraldean, Elizegi baserriko baratzea, gaur Udalaren jabetzako; Hegoaldean, jabetzaren gainerakoa; Ekialdean, bikario-etxearen gainerakoa; eta Mendebaldean, Txantxarrenea baserriko lursailak, gaur egun Udalarenak direnak

- **Izaera:** hirilurra.

- **Erregistroko inskripzioa:** Adunako 1 Liburua, 62. Folioa, 14 zenbakiko finka, 14. inskripzioa.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

1.8 UNITATEKO HIRITARTZE OBREN ADJUDIKAZIOA.

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita,

AHOBATEZ, UDALBATZAK ERABAKITZEN DU

1.8 Unitateko hiritartze obraren kontratua ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.U ri esleitzea. Kontratuaren prezio osoa 354.336 €-koa izango da eta kontratua burutzeko epea sei hilabetetakoa, beti ere, administrazio-baldintza zehatzen agirian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe

Hori guztia, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorritz. Proposamena espedientearen jasota dago.

Lehiatzaile guztiei, esleipendunari izan ezik, behin-behineko bermea itzuliko zaie. Esleipendunak jarritako behin-behineko bermea kontratua formalizatu arte gordeko da.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO OBRA ZIBILAREN
ADJUDIKAZIOA.**

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita,

AHOBATEZ, UDALBATZAK ERABAKITZEN DU

Udaletxeko igogailua instalatzeko obra zibilaren kontratua MANUEL ECHAIDE S.L ri esleitzea. Kontratuaren prezio osoa 58.493,55 €-koa izango da eta kontratua burutzeko epea hiru hilabetetakoa, beti ere, administrazio-baldintza zehatzen agirian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe

Hori guztia, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorriz. Proposamena espedientean jasota dago.

Lehiatzaile guztiei, esleipendunari izan ezik, behin-behineko bermea itzuliko zaie. Esleipendunak jarritako behin-behineko bermea kontratua formalizatu arte gordeko da.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO IGOGAILUAREN
INSTALAKUNTZAREN ADJUDIKAZIOA.**

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita,

AHOBATEZ, UDALBATZAK ERABAKITZEN DU

Udaletxeko igogailua instalatzeko kontratua ASCENSORES EGUREN, S.A.L. ri esleitzea. Kontratuaren prezio osoa 15.500 €-koa izango da eta kontratua burutzeko epea hiru hilabetetakoa, beti ere, administrazio-baldintza zehatzen agirian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe

Hori guztia, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorriz. Proposamena espedientean jasota dago.

Lehiatzaile guztiei, esleipendunari izan ezik, behin-behineko bermea itzuliko zaie. Esleipendunak jarritako behin-behineko bermea kontratua formalizatu arte gordeko da.

**HAMARGARREN PUNTUA:
ADUNAKO LARDI AUZOKO ZOLAKETA PROIEKTU ALDATUAREN BEHIN
BETIKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Adunako Udalak sustatu eta ERAINEk erredaktaturiko Adunako Lardi auzoko zolaketa proiektu aldatuari haserako onarpena eman ondoren, jendeurrean egon den epean alegaziorik ez denez izan, Udalbatzak, aho batez, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.3 atalak agindutako legezko kideen kopuruarekin, Adunako Lardi auzoko zolaketa proiektu aldatuari behin betiko onarpena ematea erabaki du, Boletinean argitaratzea eta indarrean dagoen legediaren arabera, expediente honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

HAMAİKAGARREN PUNTUA:

TORRE BASERRIKOEKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN ONARPENA ETA ALKATEARI SINATZEKO AHALMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Oraingo mahai gainean geratzen da.

HAMABIGARREN PUNTUA:

PREFABRICADOS ITURRIA, S.L.-KIN SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN ONARPENA ETA ALKATEARI SINATZEKO AHALMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Oraingo mahai gainean geratzen da.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA:

HERRIKO LURSAILA SALTZEKO ENKANTEAREN PLEGUAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak Udalaren jabetzako lursaila enkantera ateratzea proposatzen du, lursailaren deskribapena ondorengo delarik:

Xedea: Haizpea Industriegunean dagoen industri erabilerako lursail hiritarra, 3.878 m²-koa. Gehienez ere, 2.219 m²-ko eraikigarritasuna duena eta oinarrean 5 20 eraiki daiteke gehienez.

Mugak: **iparraldean**, erregistroan 313 zenbakia dagokion finka banandua, C letran deskribatua, gaur egun Arcelus, Salvatierra eta Aramburu jaun/andreen jabetzakoa; **hegoaldean**, bide publikoa eta banandutako lurzatia; **ekialdean**, Andrategi baserriko sailak

eta Izaguirre eta Sorondo jaun/andreen finkak; eta **mendebaldean**, espaloia eta bide publikoa.

Titulua: Adunako Udalarena da, lagapen tituluaz eskuratua, Madrilgo Jose Antonio Escarpin Ipiens notarioaren aurrean 1998ko uztailaren 15ean egindako eskriturak dioenez.

Inskripzioa: Adunako 1608 tomoa, 18 liburua, 62. 84 folioa, 714 zenbakiko finka, 1. inskripzioa.

Ondasunaren izaera: ondarezkoa.

Balio periziala: 851.351 €.

Aipaturiko lursaila **PROZEDURA IREKIAZ** esleitzeko **SUBASTA** arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren orriaren laburpen bat egiten du eta **AHOBATEZ ONARTZEN DU** Udalbatzak.

HAMALAU GARREN PUNTUA:
ABIADURA HAUNDIKO TRENAREN ALTERNATIBEI ALEGAZIOAK EGITEA.

Esp: Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiada Handiko Linearen **AZTERKETA**
INFORMATIBO OSAGARRIA

Erref.: «Jendaurreko informazioa. Zizurkil-Urnieta zatia

IFZ: P2000200B

Alegaziogilea: ADUNAKO UDALA

PLANEN ETA PROIEKTUEN ZUZENDARIORETZA NAGUSIARI

PLAZA DE LOS SAGRADOS CORAZONES, 7, 28071-MADRID

- Trenbideen Zuzendaritza Nagusia -

SUSTAPEN MINISTERIOA

ARANTZA ABURUZA ALKORTA andreak, NA: 34109314-S, jakinarazpenetarako helbidea Adunako Herriko Plaza, 1 eta IFZ. P2000200-B duen Adunako Udaleko **ALKATE** naizen partetik, eta gaurkoz gaur kargu guztiak indarrean ditudan aldetik, neure izen eta eskubidez jardunez, zuzenbidez egokien den moduan, **ADIERAZTEN DUT:**

Estatuko Aldizkari Ofizialaren bidez jakinarazi zaidala Trenbideen Zuzendaritza Nagusiaren iragarkia, «Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiada Handiko Linearen azterketa

informatibo osagarria, Zizurkil-Urnieta zatiari buruzkoa» jendaurrean ikusgai jartzen duena.

Aipatutako iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean eman da argitara, 2007ko apirilaren 18an, 83 zk. alean. Bada, aintzat harturik ADUNAren onura eta defentsarako berrikus daitekeela «Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiada Handiko Linearen azterketa informatibo osagarria, Zizurki-Urnieta zatiari buruzkoa»,

Udal honek alegazioak aurkeztea erabaki du, honako ALEGAZIOAK:

LEHENA.- Kontuan harturik jendaurrean ikusgai jarri den zati hori Gasteiz-Bilbo-Donostia abiada handiko trenbide berriaren zatitxo bat dela eta, sare horren interes orokorra zalantzarria izan daitekeen arren, edozein modutan ere badagoela trenbide hori lehenbailehen gauzatzeko erabaki politikoa, eta kontuan izanik hainbat trenbide-zatiko obrak esleituak daudela eta, zenbaitetan, baita egiten hasiak ere, alegazio honetan egitasmo horrek gure udalerrian sorraraz ditzakeen ingurumen inpaktuetara nahiz eragin sozio-ekonomikoetara mugatuko gara, gerta litezkeen eragin horiek ahalik eta gehien murrizteko asmoz eta, horretarako, gure laguntza osoa eskainiz.

BIGARRENA: Kontuan harturik aztergai jarri diren bi aukerak ere –Adunako udal barrutian zehar– gehienbat tunel barruan joango direla, gure iritziz afekziorik larrienak honakoak izan daitezke: sarbideek eragindakoak –bai Zizurkilgo mugako tunel-sarreran, bai larrialdietarako tunel-irteeretan– eta obrek eragindakoak. Jendaurrean ikusgai jarri den dokumentuak emandako informazioan oinarrituta, egitasmo honen afekzioak ebaluatzea ezinezkoa den arren, afekzio horiek inpaktu larriak eragin ditzakete udalerrian, baita herrigunearen inguruan eta landalurrean jendearen bizileku diren gunetan ere; izan ere, nekazaritzarako interesgarriak diren lurzoruetan, komunikabideetan, herri onurakotzat katalogatutako mendietan, baso autoktonoetan eta abarretan eragin dezake. Beraz, arretarik handiena eskatzen dugu, inpaktu horiek ahalik eta arinenak izan daitezen. Bai aukera batean bai bestean proposatu den trazadurak, Adunako udalerria zeharkatuko duen mendizatia herri onurako mendi gisa katalogatua dago; beraz, bertan burutzen diren jarduketak ingurumen baldintzak hobetzeko eta mendiaren babesa bermatzeko izan behar dute; eta, kontserbazio berezia dagokionez, bidezko eskuhartzeak gauzatu behar dira katalogazio hori ukitzen duten edota dagokion onura zein babesa kalte lezaketen inpaktuak eragiten dituzten jarduketan aurrean.

Kontuan izanik hein batean lurpean garatuko den trazadura bat aurreikusi dela, ez zaigu eman trazaduraz kanpo garatuko diren beste jarduketei buruzko informaziorik. Sarrera, irteera eta pasabideei buruz dagoen informazioaren berri eman behar litzateke. Eta, Adunako udalerria zeharkatuko duen zatian tunel bat aurreikusi denez, larrialdietarako

sarrera-irteeren inguruko informazioa agerian jarri behar litzateke; are gehiago, jakinda eremu horretan bertan lurpeko akuiferoak daudela eta horiek, Adunako bizilagunen kontsumorako direla.

HIRUGARRENA: Tunelak Zizurkilgo mugan izango duen sarreraren inguruan hainbat baserri daude; eta baserri horietan bizi den jendeak, obrak gauzatzerakoan jasan ditzakeen kalteez gain, gure ustez trenen joan-etorriak eragingo duen zarata ere seriooki pairatu beharko dute. Beraz, eragozpen horiek murrizteko beharrezkoak diren neurri guztiak har daitezten eskatzen dugu.

“Euskal Y” egitasmoaren azterketa informatiboan adierazten denez, trazadura osoan eragingo den inpaktu akustikoa larri gisa kalifikatu behar da. Halaber, azterlan horren arabera, *“trenbidearen alde banatan, 250 metroko korridorean, 94 eta 79 dezibel bitarteko zarata mailara iritsi daiteke”*, muga onargarriak gaindituz, hau da, *“70 dB inguru egunez eta 10 dB gutxiago gauez”* gaindituz. Ildo horri jarraituz, eta Abiada Handiko Trenaren inpaktu-azterketa oinarritzat harturik, trenbidetik berrehun metrora 92-94 dB-eko zarata zeharo osasungaitzak izan daitezke, herritarren bizi-kalitatea kaltetzeaz gain, giza osasunean ere eragin kaltegarriak ekar ditzaketen zaratak (bai gorreria, baita maila desberdinetako beste hainbat eragozpen ere). Zati bat lurpean aurreikusi bada ere, eta horrek begietarako nahiz belarrietarako inpaktua murriztuko badu ere, denok dakigu edozein tunelen sarrerak eta irteerak eragiten duen zarata. Beraz, afekzio hori murrizteko edo zuzentzeko neurririk zehaztu eta proposatu ez denez, ondorioa ohartarazi beharra dago; izan ere, tunelak Zizurkilgo mugan izango duen sarreraren inguruan hainbat baserri daude; eta baserri horietan bizi den jendeak aipatutako afekzioa jasan dezake.

LAUGARRENA: Edateko urari gagozkiola, esan behar da akuiferoak ere aztertu eta babestu ez diren afekzio horien eraginpean geratuko direla; eta horien xedeak biziki kezkatzen gaitu, Adunako herritarrek akuifero horietatik datorren ura edaten baitute. Beraz, edozein eskuhartze, trazadura eta obra aztertzerakoan, alde batetik, ur ibilguaren eta ur horren osasungarritasuna bermatu beharko lirateke, pertsonen kontsumora bideratu ahal izango den moduan; eta, beste aldetik, ingurune horretako obrak gauzatzerakoan, akuifero horiek zeharka kaltetuko ez diren modua bilatu beharko litzateke; hau da, aipatutako ondoriorik ez dadila gertatu zuhurtzarik gabe jarduteagatik, edo bidezko azterlan nahiz txostenik egin ez delako, edota osasun arloko administrazioak gain honen inguruan egin beharreko balorazioa eta eskuhartzea egin ez duelako.

Aipamenik ere egiten ez denez, gure iritziz indarrean dagoen araudia aplikatu behar da, eta ondorioz, eremu higagarriak eta uholdeak jasan ditzaketan edota ura kutsatzeko

arriskua duten eremuak mugatu egin behar dira. Gainera, azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak eta Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak adierazitako irizpideak jarraitu behar dira. Horrez gain, urrakortasun handiko eremuak ondo babestu beharko dira, oro har akuiferoen urrakortasuna izan dezaketenak bezalaxe; eta bereziki, pertsonen kontsumorako ura dutenak.

BOSGARRENA: Aztertu diren bi aukeretan edozein onartzen dela ere, Adunako udalerrria zeharkatuko duen tunelaren zatirik handiena, herri onurako mendi gisa katalogatua dagoen “Adunamendiaren” lurpean ipiniko da. Eta, Adunako herriaren jabetzakoa den mendi honetan, baso autoktonoak izateaz gain, espezie desberdinetako basoberritzeak egin direnez, oso balio handia du bere osotasunean, bai ekonomiaren ikuspegitik begiratuta (zura), bai aisialdi edota ingurumen ikuspegitik begiratuta, baita faunaren babeserako edota ur garrantzi handiko eremu bat erregulatzeari dagokionez ere, paraje honetako flora eta fauna oso aberatsak baitira. Horrela bada, ezinbestekoa da azpiegitura berria mendi honen integritatea ahalik eta gehien errespetatuko duen moduan egitea, bitarte horretan gauzatu beharreko obrak bezalaxe.

SEIGARRENA: Hirigintzari dagokionez, berriz, esan behar da Adunako Hiri Antolaketako Arauen berrikuspena oraindik orain onartu dela behin betiko. Agiri horretan, trenbide sare berriaren Lurralde Plan Sektorialean onartutako trazaduraren afekzio-gunea erantsi da, hau da, jendaurrean ikusgai jarri den dokumentuaren arabera, eta Adunako udal barrutiari dagokionez, ia-ia guztiz bigarren aukerarekin bat datorrena. Izan ere, soil-soilik hirigintzaren ikuspegitik begiratuta ere, bigarren aukera hori bidezkoagoa baita udalerrian indarrean dagoen hirigintza legeriarekin.

Une honetan eskuragarri dagoen informazioan oinarrituz, Udal honen iritziz bigarren aukera horrek afekzio txikiagoa eragin dezake hasieran proposatutako aukerak baino.

Adierazitako guztia aintzat harturik,

ESKATZEN DUGU adierazitako alegazioak aintzat har ditzazuen eta, era berean, hartzen dituzuen erabakiei nahiz egiten dituzuen urratsei buruzko informazio osoa guregana helaraz dezazuen, administrazioen artean harreman ona bermatzeko eta, ondorioz, azpiegituraren afekzioak ahalik eta gehien murrizteko, bai ingurumenari dagokionez eta baita, bereziki, udalerrri honetako bizilagunei dagokienez ere.

HAMABOSTGARREN PUNTUA.
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

1.- Jon Mujika Odriozola Jaunak, Tolosa Herria Hedabideak, E.M-ko Kudeatzaile gisa, HITZA proiektua diruz laguntzeko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 1.116 €-tako dirulaguntza ematea onartzen du.

2.- 28 kanala Tolosaldea Telebista: mahai gainean geratzen da.

HAMASEIGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.

1.- Gipuzkoako SOS Arrazekeria Elkartek Europako Erkidegoz kanpoko atzerriarak Udal Hauteskundeetan hautesle eta hautagarritzat errekonozituak izan daitezen aurkezturiko proposamena aztertu ondoren, Udalbatzak, bertaratutako sei zinegotzietatik 3 aldeko botu, 2 aurkako botu eta botu baten abstentzioarekin zera erabaki du:

Lehenengoa: Osoko Udalbatzak aldarrika dezala udalerrian bizi diren atzerriar naziokotasuna pertsonak bozka-eskubidea izan dezaten.

Bigarrena: Osoko Udalbatzak aldarrika dezala diskriminazio guztien aurka dagoela, eta gizarte-integrazioa bideratzeko neurri guztien alde, bereziki udal hauteskundeetako bozka-eskubidearen alde.

Hirugarrena: Dagokien erakundeei eskatzen zaie bozka-eskubide hori gauzatu ahal izateko behar diren lege-aldaketa guztiak, bereziki Konstituzioaren 13.2 artikulua aldaketa, susta ditzaten.

Laugarrena: Onartutako akordioa helaraztea, parlamentu-ordezkaritza duten talde politikoek eledunei, Espainiako Gobernuko presidenteari, lehendakariari, Espainiako Parlamentuko presidenteari, Eusko Legebiltzarreko presidenteari, Gipuzkoako ahdun nagusiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA: ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.- Loatzo musika eskolak Udalak 2.007 .urtean egin beharreko aurrekontuaren %50eko ekarpenaren inguruan aurkezturiko 8.817,87 €-tako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ekarpenaren zati hau ordaintzea erabaki du.

2.- Gipuzkoako Urak, S.A-k 2.007ko Finantziabide Kanonaren lehenengo zatiaren inguruan aurkezturiko 6.431,48 €-tako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ordaintzea erabaki du.

3.- ERAIN-ek Lardi auzoko zolaketa proiektuaren inguruan aurkezturiko 3.265,40 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura ordaintzea erabaki du.

**HEMEZORTZIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita lau orduak direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.